

## GEHIAGO UKITU BEHAR DUGU ELKAR

Testu hau ezorduan eman dut. Epez kanpo, eskatu zidatenetik zeharo orduz kanpo. Ez da aitzakia, asmoen adierazpena baizik. Jakinaren gainean egindakoa.

Hainbat aldiz idatzi dut testu hau, baina beti berandu. Gertatzen zitzaidan ezen hainbeste aldiz uzten nuela zintzilik zirriborroa, bidaltzeke, non berrirakurtzen nuen hurrengo aldian jada ez baitzitzaidan interesatzen. Ez dut hitz egiteko gogorik izan. Hori gertatzen da, batzuetan, testuekin. Horregatik irakurtzen dena idatzita dagoena da, bai eta berriz ere idazten ari dena ere. Horregatik aurrera egiten duena amaitu eta berriro hasten da, hainbatetan. Bidaltzeko zorian geundelarik, gainean dugun guztia etorri zitzaigun. Eta bai. Testu honek hainbat testu ditu aurretik.

Idazketak, arteak bezala, gorputzak bezala, badu bere denbora. Idaztea ez da automatismo bat, nahiz eta ohitura onak izan edo oso diziplinatua izan. Testuak sortzen dira, formek egiten duten bezala, natillak egosten diren bezala, intxaurren hostoak udaberrian lehertzen diren bezala. Ohitu egin gara garai horiek merkatuaren eskaerei nahitaez egokitzen, eta horregatik bihurtu ditugu gure hitzak, gure obrak eta izerdia ekoizpen elementu. Izaki bizidunak eskari horretara egokitzeko modua aurkitu dugu, ongarri eta eraldaketa genomiko aberranteekin. Transgenikoak jaten ditugu, azkarrago jan ahal izateko. Baina denok dakigu zer alde dagoen etxeko natilla batzuen eta supermerkatuko natilla batzuen artean, maitasunez landutako tomate baten eta lehenbailehen kontsumitzeko sorrarazitako tomate baten artean.

Egun hauetan halako gertakari berezia bizi dugu, non ez baikara hari neurria hartzeko gauza. Ezinezkoa begitantzen zaiguna gertatu da. Arlo sinbolikoaren eta arlo materialaren alorrean jarduten zuten jakintzen multzoa pausaturik geratu da, eta horren ordez, kode martzial bat jarri da abian. Aurrekaririk gabeko indarkeria pairatzen ari gara, neurri handiagoan edo txikiagoan (gure pribilegiozko estatusak modulatu), gure bizitzetan ezer ez balitz legez ezarri diguten hizkera militarrekin.

“Denbora errealean” bizitzetik “errealitatearen denboran” bizitzera pasatu gara.

Gertatzen ari dena da mundua gelditu egin dela. Tira, benetan gelditu dena ekoizpen-sistema da, eta, hainbestez, ondasun materialetan oinarriturik dagoen ekonomia...; izan ere, gauza txikien ekonomia, giza ekonomia, ez da inoiz hain zorrotza eta perspektibaz hain bete izan (gure arnasketa ere ez da aspaldion Lurraren arnasketari hain doitu izan). Itxialdi honek gure afekzioen eta afektuen eremura eroan gaitu.

Etxean giltzapeturik gaude, gure eskubide indibidual guztiak Estatuaren ahotsari lagata, txintik esan gabe, edo ezer gutxi adierazteke. Uste baino apalago agertu gara (hagitz otzanak gara hala eta guztiz ere), eta pentsatzen genuen guztia jarri dugu mahai gainean, berriro zer gertatzen ari den ulertzeko zain. Zaila da Leviatanen garaian foucaultar biopolitikatik edozein keinu kritikotan pentsatzea. Gure barrura itzultzea beste aukerarik ez zaigu geratzen. Ikusten ari gara kontrolaren ardatzak gizabanakoarengantz mugitzen direla;

horregatik, inoiz baino zatikatuagoak gaude, gizartetik urratuak, makurturik eta menderaturik geratzen gara, amore-emate isil eta oldargabe honetan. Tolestuta gaude, nagusiaren mende. Mendean, erabat mendean (Santa nahi zaitut). Ia sistema teoriko guztiak pikutara joan zaizkigu, ulermen-corpus ia guztiak gertakarien neurrigabekeriak harrapatu ditu, eta kolapsatuta gaude –baldin lehendik kolapsaturik egon ez bagara-. Baina egoera honi eutsi egin diezaiokegu; izan ere, adi bagaude, elkar dugula uler dezakegu, eta, batez ere, geure burua dugula aditu dezakegu.

Itxialdian gauden honetan, denboraren benetako nozioak sortu dira, eta ia inoiz ez genuen denborarik horretaz ohartzeko. Kontu larria. Beste garai bat da hau. Badirudi ekonomia feministak, bizi denaren aurretik jartzeko esaten digun horrek (Priscila, Maite eta Zuharrekin izandako elkarrizketak dakartzat berriro gogora) atsedentokia eman diezagukeela preso gauden leku ikaragarri honetan. Ezer ere ez da izandakoa berriro izango, eta hori nahi izatea akats handia izango litzateke. Dagoeneko huts egin duen liberalismo globalaren kontakizun ekinak esan nahiko digu dena normaltasunera itzuliko dela, susperraldiari eta hazkundeari doakien lelo hori behin eta berriro errepikatuz. Inoiz baino elkarrenago izan eta jardun behar dugu. Baldin eta aste hauetan egiten ikasten ari garena geldirik geratzea eta hazteari uztea bada... edo, nolana ere, landareek egiten duten bezala haztea bada (barrutik kanpora, beheherantz, astiro eta lekutik mugitu gabe), ba, barneratu dezagun orain ikasitakoa, osterago aktibatze aldera. Izan gaitezen orain garena, baina itxialdirik gabe. Horrek guztiak hobeak ingo baikaitu.

Horregatik, halabeharrez astiro joan behar dugun egun hauetan, urruntze sozialeko garai honetan, gure barrura begiratzeko, arnasa patxadaz hartzeko eta janaria zehatz eta tentuz prestatzeko aldi honetan, eskatu zidaten testura itzultzen naiz, artearen denboraz hitz egiteko proposatu nuen testu hartara (a zer gauzak!). Honako hau ia-ia manifestu bat izatea gura nuke. Birusak gehiago hitz egiten du gutaz guk birusari buruz baino. Ez dut hura aipatu ere egin nahi.

Batzuk denbora osoan ari gara birusekin bizitzen. Gertu ditugu, oso gertu. Hau ez da gure lehen pandemia, ezta isolatzen gaituen, bakartzen gaituen eta beldurtzen gaituen lehen egitura hutsala ere. Itzal ikusezin baten aurrean barnea urraturik sentitzen dugun lehen aldian ere ez da. Gertatzen dena da, besterik gabe, badirudiela orain gizarte osoa etsai ñimiño horrek kolpatzen duela, eta denok gaude zeharo izututa. Ni ikasita harrapatu nau izualdi horrek. Uste dut, alde horretatik, bizitzan lehen aldiz abantailaz jokatzan ari naizela, gutako batzuentzat larruzala beti izan baita borroka-eremu, eta, ukitzea, oso keinu politikoa.

Esku artean dugun eta antsietate handiz bizitzen ari garen astialdi hau artea jorrazteko denbora da. Artearen eta zientziaren garaia da. Izan ere, elkarrekin gurutzatzen diren bi espazio dira, ematen duena baino askoz ere maizago aurkitzen diren bi arlo. Ez ditugu zientzia eta medikuntza nahastu behar, ezta medikuntza eta klinika nahastu ere. Klinika boterea ere badelako, eta medikuntza belar eta sorginkeriak ere badirelako. Subjektibotasunaren laginek (keinua, ukitua, aldarria eta totema) erakutsiko digute zer den hau eta zer dimentsio hartzen duen. Kopuruak estatu-politikariek emango dituzte, eta narrazioa historialarien kontua izango da aurrerago; baina denbora horren dimentsioak beste gauza

batzuekin du zerikusia, eta gauza horiek ez dira ukigarriak, ezta narrazio batean islatzeko modukoak ere. Politikak huts egin du. Orain, kontakizunik gabeko garai batean gaude, neurgaitza eta deskribatzen zaila den aldi batean. Izendatu ezin den horretarako guztirako denbora bat da oraingo hau, denbora magiko bat. Urrutira joan gabe, ezta hain asagora ere, teknikaren abiadurak eta batxilergo zientifiko-teknikoaren ontasunak hondaturik geratu dira storie-etan, non jendeak erakusten baitu zer den gai marrazteko, kuzinatzeko, kantatzeko edo idazteko. Azkenean gertatu da ezertarako balio ez zuten ikasgaiak bizitzeko benetako zentzua ematen dutenak direla. Danbor dira instagram garaian. Konjuruak dira gure etxeetako bakardadean.

Une honetan ez dago diskurtsorik sorrarazteko gaitasunik, praktika baino ez. HIESarekin gertatu zen; hain zuzen ere, sistema teorikorik eta analisi-gaitasunik ez zegoenean, esperientzia eta praktika zeuden gurean. Hain ziren gainerako eta gainezkako esperientziak, non berez leku zehatz bat baitziren. Ez zen ezer gehiago behar, egin behar zena egiten zen, eta kito. Aurrera egiten genuen, lagunak jausten, hiltzen edota atxilotzen zituzten bitartean. Berdin zen medikuak edo poliziak izan. Horixe. Jokaldia behin eta berriro errepikatzen zen, baina gordinki. Esangura-keinuak, berehalako erantzun kontrahegemonikoa. Bi hamarkada behar izan ditugu praxi hori eta mugimendu horiek barneratzeko –voguinga dut gogoan, eta ukitzen gaituzten bidegurutzetan pentsatzen dut, Aimar maitea, Jesus maitea–, egungo egoera honetan zein neurriraino tinkatzen diren ulertu ahal izateko.

Ba orain erronka ikaragarria daukagu aurrean, borroka neurgaitza, eta oraingoan, soilik marikak eta transexualak barik, denok hiltzen gara. Denok kutsatzen gara. Denok gara eramaileak. Denok dugu beldurra. Denok gaude urrun, asago, denok gaude alde batera utzita sistemaren garaiak, merkatuaren garaiak, beste pertsona batzuen bizitzak salbatze aldera, eta baita gure bizitzak ere. Hori da egiten ari garena: geure burua zaindu. Etxean harrapatuta gaude eta lau hormetako ispiluetan aurrez aurre begiratzen diogu geure buruari. Ezin gara ia mugitu ere egin, eta hemen eta orain bizitzen ari gara, eta orainaldi hau, zalantzarik gabe, momentuen momentua dugu. Pultsio zuzena. Dantzarik gabeko lurraldea, hagitx keinu gutxi egiten dituen, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa. Oso keinu gutxi, bai, baina keinu posibleak dira honako hauek. Eta diskurtso menderatzaileari dagokionez ere posible, frontalitatean ere posible. Partekatzen den errealitatean ere posible.

Batzuek parentesiaren eretzean, burbuilaren eremuan kokatu nahi duten garaia bizi dugu, dena lehen bezalako berriro izango delakoan. Era askotara jasaten ari gara inperatibo horiek, erronka biral eta albiste faltsu horiek, eta horiek guztiek areagotu egiten dute gure ezinegona eta perspektibarik eza. Txorakeriatan lan egin dezagun eskatzen zaigu. Ez dut nahi. Ez da puntu bat eta jarraitua. Puntu bat eta aparte da honako hau. Gertatzen ari zaiguna gizataldearen adierazpen-mugarri bat da, izaki isolatu eta bakartu guztientzat esperientzia-espazio bilakatzen dena. Egongela dugu plaza, komunitate sentipen horretatik begiratuta. Ez da estropezu bat, amildegi bat baizik.

Asperten ari gara. Gai garrantzitsua hau. Informazioz gainezka gaude. Argi eta garbi. Pertsona askorentzat jasanezina da egoera distopiko honetan norberaren begirada arrotzak sortzen duen isla (arlot distopikoa begiradan islatzen da), eta pertsona batzuentzat errealitate

hori guztia inflexiboa da. Ez dut lehengo bizitzara itzuli nahi, ezta pertsona bera izatera ere, eta ez dut berriro pentsatu nahi oraindik aurrera egingo dudana lehen egiten nuen guztiaren berdina izango denik. Ez genuke horrela pentsatu behar. Beste leku batetik eraiki nahi dut neure errealtatea. Leku lauago batetik eraiki nahi dut, baketsuagoa, hurbilagoa, lasaiagoa den leku batetik. Likena izan nahi dut. Nire leihoaren ondoan hazten ikusten dudana photos landarearen abiadura hazi nahi dut nik ere. Baso izan nahi dut.

Horregatik, testu honek, lehen testu asko izan ziren testu honek, gaur egun artearen praktika defendatu beharraz hitz egiten du, nahaspila konpontzeko gai den praktika bakarra den aldetik. Hori da gure igarobide bakarra. Testu honek artearen denboraz hitz egiten du, "Artea erreala denaren garaia" dela esaten du. Eta "errealena" ez da soilik mundu sinbolikoaren eremuan gertatzen dena, gauzarik errealenak errizomarekin baitu zerikusia -Deleuzerekin justuak izateagatik eta landare-hazkunde horri berriz eusteagatik-. Benetakoa komunitarioaren eremuan kokatzen da, zainketen lekuan, gure lekuan, eta lapikoa dagoen lekuan. Natillak su motelean.

ekoizpen-makinarik ez daukagun honetan, ezta horizonterik ere harentzat; efizientziaren engranaje guztiak moteltzen direnean, desagertzen direnean edo, zuzenean, barnerantz lehertzen diren honetan; ziurtasunez izan genuen guztia ziurgabetasunaren amildegira iristen den honetan ... idatzi egin nahi dut, aspaldi-aspaldiko partez, lehen aldiz. Idatzi egin nahi dut. Eta nahi badut (urdaileko kontua ematen du honek), nire janariez eta nire familiakoez arduratzen ari naizelako da. Gutxiago jan eta kontzienteki egin, nire amonaren sukaldeko patata eta menu xumeetara itzuliz, oraingo hauek gerra garaiak direlako. Gutxi-rekin asko egitea. Pentsatzen ari naiz olerkiak kontrola izan behar duela prestatzen ditugun ondasunetan, zein garrantzitsua den haiei leku egitea, eta garai berri bat ematea, jatea maitasuna dela, eta landareak ia ikusi ere egiten ez dugun erritmo batean hazten direla, azkarregi goazelako/gindoazelako.

Lerro hauek idatzita dauden lerroen gainean idazten ditut, eta aurrekoa ezabatzen dut, arestikoak ez baitit balio. Nire larruazalaren orainaldi honek balio dit. Larruazala. Larruazala da, ez begiak, zentzumenik gizatiarrena. Azalak dardararazten eta ikararazten gaitu; egun hauetan tenkatu egiten zait, beste larruazal bat besarkatu, arnastu eta sentitu nahi dudalako, negar egiteko baino ez bada ere. Baina larruazal honek ezin du ezer egin, alarma-egoerak lotura hori zeharkatu eta eragotzi egiten baitu. Lehen ere esan dut ezin dugula elkar ukitu eta ez dugula elkar ukitzen. Distantzia-kondoi bat ezarri digute, hamaikagarren abstenentzia-aldia. Borroka-lege izugarria eta aginduzkoa da elkarrengandik aldentzen gaituen hau. Badakit, eta horren beldur naiz, gorputzak oroimena duela, buztinak bezala, eta, lehenago bizi izan duguna berreskuratu nahi badugu ere, kolapso hori joko honen barruan dago itsatsia.

Berriro ere bakarrik egoteko denbora. Bakarrik edo behar ez ditugun lagunekin edota pertsona malmutzekin espazioak partekatzea behartuta. Edo egoerarik okerreanean, borraroe-kin bakartuta. Bakoitzari tokatu zaigun kaiola dena delakoa izanik ere, denontzakoa da, eta kaiola da. Gure garaian, lehen aldiz, guztiok batera jasaten dugu talka. Oroimenean mugari bat dago, gure gorputzean emari-emariaz txertatzen dena, guztioi antzeko gertakaria

iritsi baitzaigu aldi batera. Nonahi, eklipsea. Guztiok berdintzen gaituen meteorittoa.

Merkatutik eta haren ezarpenetatik at dagoen artea. Egun batzuetan, aste urri batzuetan, barrurantz, tokitik kanpo, leku batean eta esparru batetik kanpo, baina esparruaren barruan, asmatzen, iradokitzen eta beste esparru batzuetara salto egiten arituko gara. Lasai, goian, lurrera, uretara, landareetara, lankideengana, maitaleen eta lagunen memoriatarara begiratzeko garaia da. Gutxirekin zerbait ateratzeko aldia. Itxaronaldia, Gaztela aldeko denboraren gisakoa. Diskurtsorik gabe, zer esanik ez dugulako, baina gutako bakoitzarengan gertatzen ari dena gauzatuz, eta gure eskuekin, gure bularrekin, gure begiekin edo gure larruazalarekin gauzatuz. Larruazalarekin bada, edo odolarekin bada, min eman diezagula. Ea arterako denbora horrek beldurra kentzen digun, sendatzen gaituen, osatzen gaituen, beste bidexka hobe batera itzularazten gaituen, edo, besterik gabe, parentesi txar bat den, desbideratu gaituen denbora-tarte bat, nahiz eta, itzultzean, tamalez, bidea itsusiagoa begitandu.

Egunotako argi txikiak izango ditut gogoan, kontaezinak diren tentsioen erdian, kale huts eta bakartuetan. Jainkoarengan pentsatu dut, eta otoitzean. A zer gauza. Felix Gonzalez Torresengan pentsatzen dut, eta gozokiak dituzten pieza polit horiek etorri zaizkit gogora. Pepe Espaliuren larruzko piezetan eta Terenci Moixen testu batzuetan ere jarri dut gogoia.

Asko idazten ari naiz egunotan, nire arropak txukundu ditudalako; galdutako giltzak eta txikia nintzenean ateratako argazkiak ordenatu ditudalako; alferrikako gauzak bota eta distira berria behar zuten objektu batzuk garbitu ditudalako. Otsail amaieran landatu nituen gau-jasmin batzuk nola hazten diren eta kameliak nola loratzen diren behatzen ari naiz. Ez dut larrialdirik nahi. Ez dut inoiz gauzak berandu entregatu beharrik izan nahi. Ez dut hats hori nire garondoan nahi, sekula gehiago ez.

Hau guztia atzean uzten dugunean, hau guztia atzean utziko baitugu, anitz aldiz gogoratu dugu inoiz edo behin hilezkorrak, hutsalak eta trebeak ginela uste genuela. Emozio haiek ez genituzke ahaztu behar, mundu inkontziente baten ilusioa zirelako. Hobeak, baliagarriagoak eta eskuzabalagoak izango gara artearen garai honetatik huntzak gure eraikinen gainetik igaroko direla ondorioztatzen badugu, azkenean hau guztia amaitzen denean.

Testu hau idazten dut, baita, eskatu zidanari gogorarazteko artearen barrutia orain zeharo beharrezkoa dela, inoiz baino areago, eta barruti horrek komunitatea eta sarea ehundu beharko lituzkeela, harremanak, egosketa geldoa behar duten osagai xume eta pobreak dituen sukaldean gertatzen den bezala. Ez dugulako batailarik behar, eta artearen merkaturak gatazka zelako. Arte-barruti horretatik atera behar duguna da barruti hori auzo-komunitate izatea, argi-patio eta erkidego-lorategi, lore basatiak, belar txarrak eta landare arraroak dituen. Merkatuak pertsonen zerbitzura egon behar duelako.

Horregatik, bada, testu hau, testu asko izan eta berandu ematen dena, hobe da orain irakurtzea. Garai berri batean gaude, eta aldi berriek formula berriak behar dituzte. Bilbok arte barrutia baldin badu, bizitzea tokatzen zaigun garai hau barneratuko duen barrutia izan beharko luke, eta gauza ona da hori kontu askotarako. Jazoera gehiegi izan dugu,

Eduardo Hurtado



gertakari lar. 'Barruti' hitza 'barru'tik dator, eta norberaren barruan geratzea, bereiztea, bakartzea, esan nahi du. Nolanahi ere, gehiago ukitu behar dugu elkar.

---

eduardohurtado.com  
experienciamoderna.com

edurtado@gmail.com

647820207